

hariak

2022ko apirila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesarekin egin da, 2019ko proiektuaren esparruan: *Hezkuntza kritikoaren prozesuei laguntzeko hausnarketak, eztabaidak eta proposamenak. Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra*. Halaber, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) laguntzarekin egin da, 2020ko proiektuaren esparruan: *Herritartasun globala birpentsatzea pandemia garaian. Gizarte-eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra*. Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da soilik, eta ez du, halabeharrez, GLEA eta AECID erakundeen iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez


Lege-gordailua: BI-1805-2016

12.zk., 2022ko apirila

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Euskerazko itzulpena: Bakun

Azaleko argazkia:

Iris Murillo Hidalgo 

Vandana Shivaren elkarrizketako galderen

itzultzailea: Sheida Besozzi

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

Finantzaileak:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus

aurkibidea



2

editoriala

Ahots bizi guztiak. Atzeraezinaren kontzientziatik
Carlos Gómez Chuliá

4

sakonean

Hezkuntza ekosoziala: hondamendiaren pedagogiaren eta alternatibak aurreratzearen artean
Jose Luis Fdez. Casadevante eta Charo Morán

12

solasean

Guk aldaketa ekologiko eta epistemologikoa ahalbidetzen dugu hori bizitzeko
Vandana Shiva

16

ekin lanari

"Por un odio me entra y por otro... nos salimos" proiektua. Ikuspegi ekosoziala eta interseksioanala duten esperientzia emantzipatzaileak
Colectivo Cala

Benetako Green, partaidetzako foro alternatiboa Vitoria-Gasteizen
Foro Benetako Green

Berriztagarriak BAI, baina EZ horrela
David Eslava Echavarren

22

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak La sangre de la tierra • Ocupación S.A.

argitalpenak Mujeres defensoras contra el extractivismo minero en el Abya Yala •

Guía para educar desde la perspectiva ecosocial en el cuidado y defensa del medio natural

erakundeak Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales • Clínica ambiental

ezinbesteko agenda Escuela de Verano FUHEM: Hacia una inclusión real •
II Congreso Internacional "Educación Crítica: hacia una práctica inclusiva y comprometida socialmente"

26

matxino artean

Urratsez urrats ortzimugara
Ania Saénz de Buruaga

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Ahots bizi guztiak. Atzeraezinaren kontzientziatik

Duela ehunka urte hasi zen dena, Valentziako Albuferako aintzirak itxi zuenean itsasoarekin zuen komunikazioa. Prozesu natural motela izan zen, eta, jariatze-uren ekarpenarekin batera, azkenean gatzgabetu egin zen Mediterraneoko arroko hondarpe-sistema handienetako eta garrantzitsuenetako bat.

Naturak gogotsu eratu zuen, mendeetan zehar, Valentziako golkoa ixten joan zen itsasertzeko lerro zabala, batez ere Mediterraneo aldeko jito-korronteak eta kostaldeko haize zeiharrek eraginda. Turia eta Júcar ibaiek etenik gabe ekarri zituzten materialak, eta, poliki-poliki, hondartzak sortzen joan ziren, elkarri atxikiak. Haizeak ere bere ekarpena egin nahi izan zuen, eta bere etengabeko bultzadan duna-multzo harrigarria sortu zuen itsasertzeko lerroaren gainean, bost metroko altuerako hesiak eraikiz. Hala, golkoa itxita geratu zen, eta sakanen txanda eta haien ekarpen kontinentalak iritsi ziren ondoren. Arian-arian, tuparriz, buztinez, errekarritz eta lokatzez betetzen joan zen aintzira. Urak gatzgabetu egin ziren. Albufera hegatziz, anfibioz, karraskariz, arrainez eta krustazeoz bete zen, baita zingiretako landarez ere.

Mende askoko bilakaera naturala, inolaz ere, habitat guztiz baliotsua sortzeko. Begien itxi-ireki batean atzerakorik ez duen inpaktua izan du ordea. Urte batzuetako ekintza antropikoa baino ez da behar izan aintziraren azalera hamarren bat baino gutxiagora murrizteko. Bertako urak guztiz kutsatu dira, eta ur horien ezaugarri kimiko eta bakteriologikoen egoerak degradazio ekologiko larria eragin du, eta, ondorioz, animalia- eta landare-espezieak galdu egin dira. Albufera jada ez da gozoa, gazitzen ari da. Albufera jada ez da balio ekologiko handiko naturagunea, lahardiz betea, non espezieak habia egiten duten, anatidoz, ahate gorritz eta lertxun inperialez betea. Gure eskuek ukitu egin dute urte askoan izandako bilakaera eta desorekatu egin dute.

Hezitzaile batek hasi zuen guztia; izan ere, erabaki zuen bere diseinu pedagogikoaren erdigunean jartzea Albuferaren suntsiketaren eta haren uren kutsaduraren arazo handia. Jarduera osagarri bat antolatu zuen ikasleek eremu horren balio ekologiko handia eta egungo degradazioa ezagut ditzaten. Bisita bat tokiko erakunde batekin, Zerbitzu Ikaskuntza metodologia bat (APS) eta bere ikastetxearen ingurune hurbileko espazio natural horren ezaugarri ekosistemikoak sakon ezagutzea. Hezitzaileak zeharkako proiektu bat txertatu zuen bere programazio didaktikoan, bere ikasleen heldutasun-mailara egokitua. Jakintza-arlo guztiak horretan lanean hasi ziren, eta hilabete oso batez arazo ekologiko garrantzitsu baterantz jarri zuen begirada. Ez zen ekintza zehatz bat, ez, hezitzaileak bazekien hezkuntza konplikatu eta sistematizatu egin behar zela curriculum ofizialaren berezko arrakaletatik. Eta, prozesu geomorfologikoen borondate eramankorrenekin, curriculumeko edukiak eta estrategia metodologikoak moldatu zituen, ikasleengan atzeraezinaren kontzientzia ereiteko, mugak dituen mundu honetan.

Hezitzaile baten proposamenarekin hasi zen guztia; izan ere, ikuspegi ekosoziala txertatu nahi zuen bere ikasgelan, bizitza jarrita hausnarketaren eta esperientziaren erdigunean, hurbileko lurraldearekin eta komunitatearekin lotu ahal izateko, egungo garapen-eredua agerian jarri eta salatzeke eta beste aukera batzuk imajinatu, eraiki eta esperimendu ahal izateko. Berak ondo asko daki hori, bere ikasgelan arazo sozial, ekonomiko eta ekologikoak konpontzera bideratua baitago hezkuntza. Ikuspegi ekosozialetik begiratuta, pertsona ekodependenteak sentitzeko gaitasuna garatzen du, bizirik egotea ahalbidetzen duten interdependentzia sakonen jakitun.

Ezin dugu ezer aldatzen ari ez balitz bezala hezten jarraitu, horixe diote anfibioek, hegaztiak eta karraskariak, mansiegek eta lezkadiak, ibaiek eta haizeak. Hezitzaileak, horien ahots bizi guztiak entzuten baititu, erabaki zuen bizkarra ez ematea gertatzen ari denari, egunetik egunera eragin handiagoa baitu gure ingurune ertainean eta hurbilean: berotze globala, biodibertsitatearen galera masiboa, desberdintasunak areagotzea, erregai fosilak eta mineralak erauzteko zenita, tentsio militarra... Ezerk ez du geratu behar hezkuntza eraldatzaitetik kanpo. Gizarte-aldaketaren praxia ez da lortuko gertatzen denari buruz azterketa eta hausnarketa sakona ez bada egiten.

Eta batere inozoa ez den itxaropen horretatik abiatuta, nahi ditugun orainak eraikitzeke utopiak diseinatu ditu hezitzaileak ikasleekin. Bere ustez, hezkuntzak lagundu egin behar digu bidezko kausa batean parte hartzeko gai senti gaitezen, eredu nagusia ikuspegi kritikoz zalantzan jarrita, eta, gure uste osotik beste mundu posible hori irudikatuta. Halaxe eraman du bere ekintza pedagogikora ikuspegi ekosozialaren azpian dagoen etika, zerbait esateko eta egiteko biltzen diren ehun emantzipatzaile, jasangarri eta demokratikoak sortuz, argi baitu arazo handiak ez direla naturalak eta, beraz, zerbait esan eta egin behar dugula (berehala egin ere).

Ikasleek, asanbladaren bidez, amaierako jarduera bat proposatu diote hezitzaileari diseinu pedagogikoa egiteko. Jarduera horren bidez, eskola-irratitik salatu nahi dute beren probintziaren barneko aintzira ikusgarri horren narriadura, eta ohartarazi nahi dute mugak dituen eta gainerako mundu biziarekin partekatzen dugun planeta batean bizi garela. Gainera, ikasleak Albufera zaintzen lan egiten duten erakundeekin harremanetan jarri dira, eta haien lanarekin konpromiso aktiboa hartzea erabaki dute. Eskolako jantokiraino iritsi da haien esku-hartzea, bertako produktoreekin harremanetan jarri baita beren produktuak eguneroko menuan sartzeko, eta familiekin kontsumo-talde bat egituratzeko aukera eztabaidatzen hasi da. Zuzendaritza-taldeak laguntzen du ikasleak protagonista dituen prozesu horretan, eta eskolako baratzea hobetzea lortu du. Hala, jada ez da soilik laborantzako gunea, ikasgela irekia ere bada, ikasteko baldintzez betea. Hezitzaileak irribarre egin du etxerako bidean: gaur behiak non bizi diren galdetu diote, eta diseinu pedagogiko berri batean pentsatzen hasi da dagoeneko.

Kontua da eskola (dituen esanahi guztietan) emantzipazio-eremutat hartzea, eta ez gizartea birsortzeko eremutat. Eskola, pertsonen planetan esku hartzeko gaitasuna garatzen duten toki gisa, ikuspegi eraldatzaile eta ekosozialarekin betiere. Hezkuntza-sistema kapitalistaren mekanismoak eta balioak tinko baztertu behar dira, eta uste osoarekin bilatu eta eztabaidatu ulertzeko, izateko eta gure planetan bizitzeko beste modu batzuk.

Gaur, ubarroiak Albuferako uretan igarotzen du negua, eta haizeak jarraitzen du harea mehea dunen gainera bultzatzen. Geldi gaitezen ahots bizi horiak guztiak entzuten. Gozamina da. Premiazkoa da.

Carlos Gómez Chuliá

FUHEM fundazioko hezitzaile ekosoziala eta *El Aula Revuelta* elkarteko koordinatzailea



Hezkuntza ekosoziala: hondamendiaren pedagogiaren eta alternatibak aurreratzearen artean

Garúak utzitako irudia.

Jose Luis Fdez. Casadevante, *Kois*. Soziologoa, elikadura-burujabetzan nazioarteko aditua Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatean. 2009az geroztik, **Garúa** kooperatibako kidea da. Kooperatiban, bere lana ikerketak eta prestakuntza-prozesuak bultzatzea da, baita ekologia-eta gizarte-trantsizioekin lotutara duten kultura-eduki eta -ekitaldiak diseinatzea ere, zehazki, hiri-ekologiaren, ekonomia solidarioaren edo kultura-aldaketen arloetan. Auzo-mugimenduko aktibista da Seco Gizarte Zentrotik, eta **Madrilgo Auzo Elkartearen Eskualdeko Federazioko** (FRAVM) Hiri Baratzeen arduraduna. Ohiko kolaboratzailea da '**El Diario**' eta beste hainbat hedabidetan, eta bere bloga **Raíces en el asfalto** da (Garúaren webgunetik ateratako biografia).

Charo Morán. Biologia zientzietan lizentziaduna da, eta ekologiara, ingurumen-kudeaketara, hezkuntza ekologikora eta ibilbide luzeko prestakuntzara bideratutako lan-ibilbidea du. Ikerketa-bekadun gisa hasi zen lanean (itsas biologia), baina ekologia sozialean, naturan, jasangarritasunean, kontsumo eraldatzailean, agroekologian eta heziketa ekologikoan, besteak beste, espezializatu zen. Ekonomia solidarioaren parte da hainbat proiektutan (**La eComarca** kontsumo-taldea, **Mercado Social**, etab.), baita La Guindalerako auzo-guneetan ere. **Ecologistas en Acción** (Ekologistak Martxan) taldeko militantea da, bereziki heziketa ekologiko eta kontsumo gaietan. Gaur egun, idazkaritzako kidea da eta konfederazio-mailako kontsumo-arloa koordinatzen du (Garúaren webgunetik ateratako biografia).

Larrialdiko egoeretan, bizitzan are arrisku handiagoak hartzen ditugu eta gai gara era ausartagoan esperimintatzeko. Eta krisi ekosozialak, ezer bermatzekotan, haustura-garaiak biziko ditugula bermatzen digu, eta ingurumen-baldintzak eta baldintza ekonomikoak gero eta kontrakoagoak bilakatuko zaizkigula. HG Wells zientzia-fikzioko idazlearen esanetan, zibilizazioa hezkuntzaren eta katastrofearen arteko lasterketa da. Horrenbestez, katastrofea saihestu eta alternatibak aurreratzeko gai izango den hezkuntza ekosozial integral bat hedatu behar dugu, azkar.

Hezkuntza-sistema publikoak pribatizazio- eta merkantilizazio-prozesuen mehatxupearan daudela-eta haien aldeko borroka egiteaz harago, bada kezka bat, gero eta handiagoa eta integrala, hezkuntza-jardueraren zentzuaren inguruan. Gure ustez, hezkuntza ekosozialak palanka gisa funtziona dezake hezkuntza formala eraldatu eta kezka horiek gizarte osoari hedatzeko, eta, hala, bestelako eragileei –hala nola mugimendu sozialei– protagonismo pedagogikoa emateko.

Esperimentalismotik hezkuntza-sistemaren muinera

Berrikuntzak gizartearen periferian eta ertzetan gertatzen dira, ingurune instituzionalizatu zurrune-tan baino gehiago. Ertz horietan nahikoa askatasun-maila dute esperimentuak eta probak egiteko, ikaskuntzak pixkana lortzen laguntzeko eta ezagutzak sistematizatzeke. Lan horren guztiaren helmugan prototipo erreplikagarri eta eskalagarrien diseinua dago. Prototipo horiek azkar heda daitezke, eta politika publikoetan txertatzera iritsi.

Gure historian zehar, gizartearen demokratizazio-prozesuarekin batera egin dute aurrera hezkuntza-sistemaren berrikuntza pedagogikoko eta ekologizazioko prozesuek. Halako testuinguruetan, hezkuntza-erreformekin batera, eskola-esparrutik harago zihoazen helburu eraldatzaileak garatu ziren.

Gogora dezagun Bigarren Errepublikaren aurreko hamarkadetan Irakaskuntza Erakunde Askeak ("Institución Libre de Enseñanza") izandako funtzioa, baita haren berrikuntzak ere, hala nola laizismoaren eta arrazionalismoaren garapena, haur-hezkuntza eta bigarren hezkuntza, azterketak desagertzea, programa eta testuliburu zurrunen ordezkola praktikoak ematea, baterako hezkuntzako aurrera-

« Katastrofea saihestu eta alternatibak aurreratzeko gai izango den hezkuntza ekosozial integral bat hedatu behar dugu, azkar »

rapenak... eta ingurumenarekin lotutako gaiak lantzea. Aitzindariak izan ziren ikasleei naturarekin harreman zuzena izateko aukera ematen, horretarako eskola esperimintalak emanez eta irteerak eta kanpaldiak eginez, baita ikastetxeetan baratzak abian jarritz ere.

Mende erdi geroago, diktaduratik ateratzean, Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduek (BPM) hezkuntza aktibo eta kooperatiboaren printzipioak eguneratu zituzten, garaiko hezkuntza-proposamen alternatibo eta erakargarriak txertatu zituzten –Sumerhill eta Barbiana, adibidez–, eta hainbat auzi eztabaidatu zituzten, hala nola eskolagabetzea eta hezkuntza ez zuzendua. Irakinaldi pedagogiko horren barruan, BPMak aitzindariak izan ziren, halaber, ikastetxeetan ekologia-gaiak berriro txertatzen, eta urte haietan ingurumen-hezkuntza sustatzen zuten nazioarteko korronteak gure testuingurura ekartzearen protagonista nabarmenak izan ziren.

Bi esperientziek erakutsi dute, beraz, beren garaiko hezkuntza-sistemak eraldatzeko kezka. Haien baitan, justizia sozialaren aldeko sentsibilitatea dago, erabakigarria gertatzen dena ulertzeko nola bideratu behar diren berrikuntzak hezkuntza publikora, unibertsal bihurtu ahal izan daitezen eta biztanleria osora iristeko. Gizartearen eta eskolaren arteko hartu-eman hau, espermentalismoaren eta instituzionalizazioaren artekoa, egokia da oraindik ere.

Hezkuntza ekosoziala demokratizatzeak berekin dakar hezkuntza publikoaren ardatzean txertatzea, eskola-bizitzaren hainbat alderdi iraultzeko gai izan dadin, eta, aldi berean, hezkuntza-sistematik harago hedatzea, beste errealitate batzuk, familiak, gizarte-mugimenduak, sindikatuak, kooperatibismoa edo enpresak, ekologizatzeke gaitasuna duen tresna bihurtzeko. Prozesu horretan, ezinbestekoa da hezkuntza ekosozialak beste ezagutza-eremu batzuekin hartu-emana izatea eta beren burua aberastea: pedagogia kritikoarekin (ikaskuntza-komunitateak, ikaskuntza kooperatiboa...), ekonomia sozial eta solidarioarekin, artearekin eta komunikazioarekin, zientziarekin eta ezagutza tradizionalarekin, gizarte- eta ingurumen-gatazken bitartekaritzarekin eta kudeaketarekin...



Garúak utzitako irudia.

Horrez gain, mugimendu sozialak hezkuntzarako mugimendutzat hartu eta baliatu beharra ere aipatu behar da. Batetik, trebakuntza-jarduera zehatz eta espezializatuak egiten direlako, eta bestetik, berez hezkuntzako auziak direlako bai jarduera horiek antolatzeke modua, bai eratzen diren harreman sozialak, bai gatazkak kudeatzeko moduak eta bai sortutako ezagutza bideratzeko erak. Psikologiak erakusten digunez, jarrera-jarraibide asko ez dira era kontzientean eta intentzios hartutako erabakien ondorioa, baizik eta ohitura eta prozeduretan egindako aldaketak denborarekin gure izaeran eta mundua ulertzeko moduan sendo txertatzearen ondorioa. Intuizioaren kontrakoa dirudien arren, baliteke jardunbide, ekintzen eta adibide egoki alternatiboen ekosistemek berek sentsibilizatzea beste ezerk baino gehiago, horiek erakusten baitute zer aldaketa egin nahi ditugun munduan.

Curriculum ekosoziala: edukiak eta prozesu pedagogikoak ekologizatzea

Egungo dimentsio anitzeko krisian (ekologikoa, soziala eta ekonomikoa), ezin dugu kultura biozida eratu duten irakaskuntzak sustatzen jarraitu. Etorkizuna ez da orainaldia bezalakoa izango, ez eta hurbileko iragana bezalakoa ere. Hezkuntza

ekosozialak funtzio nagusi bat beteko du egoera berri horretan; ezin diogu hezkuntza-lan horri ekin, ezer aldatzera ez balihoa bezala.

Ziurgabetasunean aurrera egiteko prestatu behar ditugu ikasleak, eta tresna egokiak eman behar dizkiegu, datozen aldaketei egokitzeko aukera eman diezaieten eta aldaketaren agente aktibo izatera bultzatu ditzaten. Horretarako, zibilizazioaren krisiaren diagnostiko egoki batetik abiatu behar dugu, ikasleak beren hurbileko inguruari lotutako arazoak konpontzeko gaituko dituen, eta sormena eta lankidetzat garatzea ekarriko dena. Justiziaren eta demokraziaren aldeko apustua oinarritzat izango da gizarte berriak eratzeko, hau da, bai erronka horiei aurre egiteko eta bai bizitzaren jasangarritasuna ardaztat hartzeko gai izango diren gizarteak eratzeko.

Pertsona guztiak gara ekomendekoak, gure biziraupena eta ongizatea ekosistemen orekarekin lotuta baitago. Fotosintesi, polinizazio eta planeta-zikloen erregulazioarekiko mendekotasun handiagoa dugu merkataritza-guneekiko edo sare sozialekiko baino, nahiz eta gure kulturak lotura hori ezkutatu. Gure planetaren mugak ezagutzea eta onartzea funtsezko ikasgaia izango da, eta hala, begirada sistemikoa eskuratuko dugu, munduan egoteko

dugun modua birpentsatzen eta biosferaren legeak onartuz garatzen lagundu diezagun.

Era berean, elkarren mendekoak gara; bizitza osoan zaintzak behar dituzten izaki sozialak gara. Desberdintasun handiz jositako mundu honetan, zaintzaren ardura banatu behar dugu, enpatia landu eta justizia soziala sustatu. Unibertsal egin ezin daitekeen guztia pribilegio bat dela konturatu behar dugu, eta, baliabide eta hustuleku mugatuak dituen planeta honetan, gauza bakarra dela justua: banaketa eta nahikotasunaren kultura. Seguru asko, datozen aldaketek eraginda, areagotu egingo dira polarizazioa eta haserre sortzen duten egoerak. Horregatik, ezinbestekoa izango da era kolektiboan lan egiten ikastea eta gatazkak indarkeriarik ezaren ikuspegitik ebazteko tresnak eskuratzea.

Ikasgelan, edukiak bezain garrantzitsuak dira erabiltzen diren metodologiak. Ezinbestekoa da ikasleria ikaskuntza-prozesuaren partaide sentiaraztea, eta proiektu, esperientzia eta erronka eraldagarriak abian jartzeko aukera izatea. Lurrarekin eta gainerako izaki bizidunekin –gizaki direnak eta ez direnak– harmonian bizitzen irakatsiko duten imaginario posibleak eta desiragarriak gauzatzeko proposamenak landu behar dira ikasgelan, horretarako laborategi bihurtuta.

LOMLOE hezkuntza-lege berria (autonomia-erki-degoei dagokien zatia garatze-fasean duena) aurrerapauso bat da curriculumeko proposamen horietako asko garatu ahal izateko. Legearen gabezia nagusia da, ordea, ez duela kompetentzia ekosozialik gai horiek transbertsal egiteko eta erdigunean jartzeko, eta, besteak beste, egun bizi dugun zibilizazio-krisiaren diagnostiko egokia abiapuntutzat ez hartzea ere bai.

Hezkuntza-curriculumetan hori errealitate bihurtzen laguntzeko, **FUHEM**ek curriculum-proposamen zabal eta zehatz bat egin du, era transbertsalean landua, eta haur-hezkuntzatik batxilergora eta lanbide-heziketara hedatzen dena, Gizarteko, Naturako eta Balioen arloetan. Halaber, unitate didaktikoak garatzen ari dira, DBHko geletan ikuspuntu ekosoziala hartuta eta era diziplinartekoan lan egin ahal izateko.

Bestalde, Ekologistak Martxan elkarteko hezkuntzarloak, Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduekin batera, hainbat koaderno didaktiko diseinatu ditu, gako-galdera batzuen bidez egituratuak, aukera eman

“ Baliabide eta hustuleku mugatuak dituen planeta honetan, gauza bakarra dela justua: banaketa eta nahikotasunaren kultura ”

dezaten paradigma desarrollista eta ekonomizistan pentsamendu kritikoa aplikatzeko. Gure kulturak ikusezin bihurtzen duenari buruz galderak egiten eta hura ikertzen ikasteko modu bat.

Aldaketa bizitzea: eskolak ekologizatzea

Curriculum-edukiak eta prozesu pedagogikoak oinarrizkoak dira hezkuntza ekosoziala sustatzeko. Alabaina, motz geratuko dira bizi-esperientziatik eta sormenetik abiatutako proiektu eta esperientzia esanguratsuak garatzeko gai ez bagara, eta ikasleari trantsizio ekologikoa eguneroko bizitzan praktikatzen eta esperimendatzeko aukera ematen ez badiote.

Eskolako jangelak funtsezko esparruak dira elikadura-hezkuntzarako. Eskolako menuetan irizpide osasungarri eta jasagarriak aplikatzeak aukera ematen du, zalantzarik gabe, ezinbesteko jardueraren batean oinarrituta oso esperientzia baliagarriak izateko, gai baitira ikaskuntza esanguratsuak eta ohitura-aldaketak sortzeko. Eskoletako baratzeek ere aukera ematen dute aldi berean alderdi teorikoa eta praktikoa, ludikoa eta bizipenezkoa lotzen dituzten prozesuak garatzeko. Baina, gainera, ikuspegi agroekologikotik lan egiteko aukera bat dira. Izan ere, esperientziaren bidez auzi konplexuekin konektatzeko aukera ematen dute, hala nola elikadura-burujabetzarekin, tokiko barietateen garrantziarekin, hondakin organikoak konpost bihurtzearekin eta denboraldiko dieta (karbono-aztarna txikikoa) sustatzearekin.

Prozesu horiei koherentzia emateko beste tresna erabilgarri bat ikastetxeetan ekoikuskapenak egitea da. Horien bidez, ikastetxeak ekologizatu egiten dira, eta klima-aldaketa murrizten laguntzen da, ikastetxean baliabideak aurrezteko (ura eta energia) edo iturri berriztagarriak instalatzeko neurri aktiboen ekintza-plan bat aktibatuta. Bestalde, hondakinen kudeaketa lantzeko aukera ematen du, ontziak birziklatzetik eta koloretako edukiontzia

erabiltzetik harago, erronka handiagoak sustatzen baititu zaborra edota plastikoak gutxitzeko; horren adibide da *Teachers for future*-ren "Jolasgaraian zero hondakin" proiektua.

Ikastetxeak ez daude klima-aldaketaren inpaktuetatik kanpo. Hori dela eta, tenperatura-igoerara egokitzeko neurriak sustatu behar dira: toloak, pertsianak, itzaldun espazioak diseinatzea eta tokiko baldintzetara egokitutako landaretza lartzea. Klima-aldaketarekiko erresilientzia areagotzea da helburua, energia-kontsumoa handitzea eta horri lotutako emisioak areagotzea eragiten ez duten proposamenak erabiliz.

Bestalde, kontsumo kontziente eta arduratsuak izan beharko luke ikastetxeen izaeraren bereizgarrietako bat, eta koherentzia bilatu beharko litzateke eskola-materiala erostean eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzean, irizpide jasangarriak eta bidezkoak aplikatuta. Ikastetxeak aldaketarako motorra izan daitezke, ekonomia sozialaren eta solidarioaren ekimenei lagunduz eta hezkuntza-komunitate osoarentzat eredu izanda, batez ere familientzat.

Jolastokiak kirolak egiteko eremu gisa pentsatu dira tradizionalki, futbolerako batez ere. Horrek berekin dakar espazio guztia joko-monolaborantza kulturalaren esku uztea, eta baztertu egiten ditu horretan aritzea gogoko ez dutenak, bereziki neskatoak. Garrantzitsua litzateke espazio horiek berriro diseinatzeko aldaketei ekitea, parte-hartzea sustatuz, dibertsitatea eta espazioaren erabilera bidezkoa kontuan hartzen dela bermatzeko.

Ikastetxeek beren auzo eta herrietako bizitzan txertatuta eta haietara zabalik egon behar dute. Eskola-eremuek balio pedagogiko handia dute, eta, beraz, komeni da haien inguruko eremu publikoa erabilera kolektiborako bereganatzen saiatzea, eremu berdeak errebindikatuz, trafikoa lasaituz, oinez joateko ibilbideak eraikiz eta ekimen kolektiboez gozatuz, hala nola "bizibus" direlakoez. Eskola Iraultza ("Revolución Escolar") eta antzeko mugimenduek errebindikatzen dutenez, haurren autonomia-maila

“ Hezkuntza ekosoziala ez da ezagutza eta trebetasun berriak transmititzea soilik, baizik eta naturarekiko sentsibilitate berria lantzea ere bai ”

erakusle bikaina da hiriek biztanleria osoarentzat zenbaterainoko bizigarritasuna duten jakiteko. Kaleek erakusten digutena ikastetxeen barruan gertatzen diren ikaskuntzen osagarri da.

Alde horretatik, garrantzitsua da, era berean, ikastetxeak proiektuak eta ikaskuntza-zerbitzuko proiektuak garatzean kontuan hartzea aukera eman behar dutela ikertzeko eta auzoetan esku hartzeko, eta hobekuntzarako erronka ebaluagarriak finkatu behar direla: despentsa solidario bat abian jartzea, bizikletak konpontzeko eta trukatzeko tailer bat antolatzea, kontsumo-kooperatiba bat osatzea... Eskolak aldaketa sozialaren eta alternatiba eraldatzaileak abian jartzearen erreferente bihurtzea da gakoa. Horren harira, *Fridays for future* edo *Madres por el clima* ekimenei, adibidez, laguntza aparta eskaintzen dute.

Naturarekin berriro konektatzea

Pertsona ezezagunak faltan sumatzen ez ditugun era berean, ezin dugu maitatu eta defendatu gurea ez dela iruditzen zaiguna. Duela urte batzuk, Richard Louv-ek *natura-defizita* deituriko ideia plazaratu zuen. Horren bidez, oso modu sinesgarrian azaltzen du gure gizarteak gero eta deskonektatuago daudela naturatik, eta natura abstrakzio hutsa bihurtzen ari dela, bizitzarako esperientzia esanguratsuak eman dizkigun errealitate hautemangarri bat izan beharrean. Ezin da ekomendekotasuna ulertu, bizitu ez bada.

Adin-talde guztietan gero eta ohikoagoa da urruntze hori, baina are nabarmenagoa da haurren artean, aisialdia eta harreman sozialak birtualizatu izanaren ondorioz. Askok dakite zer den zuhaitzetara igoz eta txabolak eraikiz gozatzea, edota ibaietan igeri eginez, baratze bat landatuz, kanpatuz eta izarren azpian lo eginez gozatzea.

Hezkuntza ekosoziala ez da ezagutza eta trebetasun berriak transmititzea soilik, baizik eta naturarekiko sentsibilitate berria lantzea ere bai. Izan ere, alderdi arrazionaletik harago joan behar da, dimentsio emozionalak eta naturan bizitako esperientzia positiboak ordezkatzeko baitira. Berriro konektatze horretan, garrantzi handia du hala naturarekin harreman handiagoa izateak nola bertan murgiltzeko esperientziak garatzeak.

Baso Eskolak aurreko mendearen erdialdetik daude abian Danimarkan. Eskola horietan, basoa hezkun-

tzarako baliabide gisa erabiltzen dute haurrentzat. Hezkuntza-sistema formalak onartutako ekimenak dira, eta aire zabalean egiten dira ia erabat, tokiko basoetan eta parke handietan. Aukera eman dute haurren autoestimua handia eta norberaren gaitasunetikiko konfiantza garatzeko, bai eta taldean modu eraginkorrean lan egiteko gaitasuna garatzeko eta naturarekiko lotura sendoa finkatzeko ere. Eredu horren arrakasta beste herrialde batzuetan ere erreplikatu da, bereziki Erresuma Batuan. Han, eredu misto bat eratu dute: hango baso-eskoletan, ikastetxeko ikasketa-planaren arabera, haurrak hiru egunetan joaten dira ikastetxera, eta bitan basora. Horren helburua da hezkuntza-esperezian natura berriro sakon ezagutzeko, eta basoan elkarrekiko mendekotasuna, autoerregulazioa eta ingurunea era positiboan eraldatzeko gaitasuna bizitzea.

Eman dezake ekimen horiek urrun daudela gure geografiatik, eta ezinezkoa dela gure egungo hezkuntza-sistemara era orokortuan ekartzea. Prozesuak abian jartzeko eta paralisitik ihes egiteko modu bat izan daiteke bai gela barruan eta bai korridoreetan landareak zaintzen hastea, baita eskolako baratzearen proiektu integralak garatzea

ere. Eta, bereziki, ikastetxeko patioak berriro naturalizatzea; haietan zuhaitzak, landareak eta ura sartzea; eta hainbat elementu eta eraikuntza ezartzea, jolas librearen orduan talde-jolasak, lankidetzak eta irudimena sustatzeko.

Paris, Bartzelona eta antzeko hirietan, eskolako patioak babes klimatiko bihurtzeko planak ezartzen inplikatu dira, beroaldiei aurre egin ahal izateko. Berriro naturalizatzeko prozesuan, iturriak, urmaelak eta antzeko ur-osagarriak sartzen dira, landare-elementuez gain. Horien bidez, dentsitate handieneko hiri-eremu konpaktuenetako giroa hoztea da helburua. Hezkuntza-komunitateak eta bizilagunen sareek parte hartzeko prozesuen bidez lantzen da diseinu berria. Gainera, eskola-orduetatik kanpo, asteburuetan eta eskolako opor-garaietan, patioak eremu publiko gisa erabiltzeko aukera sustatzen da.

Naturarekiko kontaktuaren defizita eta parte-hartze soziokomunitarioaren defizita batera landu daitezke, ikaskuntza-zerbitzuko ekimenak ugalduz eta ekimen horiek beste esperientzia batzuekin lotuz, hala nola ingurumena leheneratzearekin, baratze komunitarioekin eta auzotarren arteko



Garúak utzitako irudia.



Garúak utzitako irudia.

lorezaintzarekin, inguruko eremu berdeak garatzen eta zaintzen lagunduko dutenak.

Eguneroko aldaketa horiez gain, naturan murgiltzeko esperientziekin osatu behar dira, eta adinaren arabera egokitzen joango dira. Esperientzia horietako batzuk izan daitezke, adibidez, lehen hezkuntzan egun bateko irteerak egitea basora, mendira, ibaira eta itsasora; hainbat egunetako egonaldia egitea naturan, bizikidetzan eta aire zabaleko jarduerak eginez; udalekuak; esperientzia agroekologikoei lotutako auzolandegiak; mendi-irteerarako taldeak, familia-elkarteekin lotuak, eta abar. Hala, demokratizatu egin ahal izango dira esperientzia horiek.

Etorkizunari aurrea hartzen dion ikaskuntza

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, orduko garapen-eredua zalantzan jartzen zuten muga biofisikoak eta krisi ekologikoa atzematen hasi zirenean, hezkuntza-sistemak nola birmoldatu izan zen ardura nagusietako bat. *Ikastea, mugarik gabeko horizontea* (Erromako Kluberako Txostena) izan zen lanik iradokitzaileenetako bat. Asko laburtuta, esan daiteke honako hau ematen zuela aditzera: ikasteko

eredu konbentzionala, "mantentzekoa", gizarte bat kulturalki erreproduzitzeko erabilgarria bazen ere, ez zela funtzionala haustura eta eten historikoko testuinguru batean. Horren aurrean, etorkizunean finkatuko ziren bi ikaskuntza-mota azaltzen zituen: "shock" bidezko ikaskuntza eta "aurrerapen" bidezkoa.

- "Shock" bidezko ikaskuntza gertaeren inpaktu bortitzean oinarritzen da, eta berekin dakar nahi gabeko eta planifikatu gabeko fenomeno drastikoetara nahitaez egokitzea.
- "Aurrerapen" bidezko ikaskuntza, berriz, arazoei aurrea hartzean oinarritzen da, etorriko den errealitatearen definizioak adosten ditu eta irtenbideak ezartzen ditu, nahi ditugun etorkizun posibleak sortzeko eta haiengan eragiteko dugun erantzukizuna eta gaitasuna onartuta.

Orain artekoak ikusita, hezkuntza ekosozialak agenda bikoitza izan beharko luke, ikastetxe barruko nahiz kanpoko lan-agendan bi hurbilketa horiek txertatzeko. Malgutasuna izan beharko luke, etorkizun hurbilean izango ditugun krisialdi errepikakorren aurrean esku-hartzeko eta pedagogia egiteko, gertakariak konektatzeko hausnarketa


“ Hezkuntza sozialak bere egiten du ideia garrantzitsu hau: etorkizunari aurrea hartzeko modurik egokiena hura eraikitzea da ”

sistemikoa eskainiz eta praktikan egoera horiei aurre egiten lagunduz. Pentsa dezagun zer-nolako protagonismoa izan duten pandemiaren hasieran sortutako laguntza- eta zaintza-sareek. Hala ere, komeni da konturatzea ikaskuntza hori nostalgikoa izan ohi dela, eta kosta egiten zaiola irakatsitakoak finkatzea, lehengo normaltasun-egoerara ahalik eta lasterren itzultzeko aukera egongo delakoan. Arrisku nagusia iraganera itzultzen saiatzea da, gertatutako aldaketa asko itzulezinak direla onartu ezinik.

Kultura alternatibo bat, ekoizpen-eredu berri bat edo bizimodu jasangarri eta prosozialak inprobisatu ezin direla argi geratu denez, hezkuntza sozialak bere egiten du ideia garrantzitsu hau: etorkizunari aurrea hartzeko modurik egokiena hura eraikitzea dela; hau da, heztea, konbentzitzea, kontzientzia-

tzea eta konturatzea lortzea, jendea inplikatzeko has dadin etorkizuneko katastrofeak saihesten edo gutxitzen lagunduko duten aldaketa-prozesuetan. Aurrerapen bidezko ikaskuntza indartzeko, ezinbestekoa da diagnostiko fidagarriak edukitzea, haien bidez egin ahal izango baitira pronostiko sinetsgarriak eta zientifikoki balioztatuak. Etorkizuneko egoera horiek jardura sozial alternatiboak eta politika publiko eraldatzaileak legitimatu eta hedatu behar dituzte.

Ivan Illich-en esanetan, gizartea den bezalakoxea izatea behar duzula sinestarazten dizun publizitate-agentzia da eskola. Hezkuntza ekosoziala prozesu jakin bat da, batetik, herritarren artean ezagutza eta sentsibilitate berriak sozializatzeko egina, une honetan bizi dugun bidegurutzea uler dezaten; bestetik, beharrezko ditugun politika publiko apurtzaileekin konplizitate sortzeko egiten den prozesua ere bada, bai eta etorkizun alternatiboak imajinatzeko ere, hau da, etorkizun erakargarriak, etorkizun horiek eraikitzen pertsonalki eta kolektiboki inplikatzen bezainbeste. Zientziaren, politika publikoen eta jardun komunitarioaren artean elkar ulertzeko bitartekaritza-lana da, tokiko mailan aldaketa- eta trantsizio-prozesuak azkartzeko. Gaur da etorkizuna.





Vandana Shiva utzitako irudia.

Guk aldaketa ekologiko eta epistemologikoa ahalbidetzen dugu hori biziz

Vandana Shiva (1952, India) doktorea da Fisika Zientzietan. Zientzia arloko ekologista, feminista eta filosofo ospetsuenetako bat da. Neoliberalismoaren aurkako borrokan dihardu eta herrien eskubideak defendatzen ditu. Baldintzarik gabeko konpromisoa du emakumeekin eta, bereziki, Lurrarekin, gure sustraien ama baita. Filosofoak Lurra gizabanakoaren parte den izatetzat hartzen du, eta, sentimendu horri leial, klima-aldaketarekin, desperekotasunarekin, bidegabekeriarekin, gerrekin eta gosearekin bukatuko duen eraldaketa aldarrikatzen du. Eragin handiko hainbat liburu idatzi ditu, besteak beste: *Abrazar la vida: mujer, ecología y desarrollo* (Horas y Horas, 1995), *Biopiratería: el saqueo de la naturaleza y del conocimiento* (Icaria, 2001), *Las nuevas guerras de la globalización. Semillas, agua y formas de vida* (Popular, 2007), eta *¿Quién alimenta realmente al mundo?* (Capitán Swing, 2018) (Madrilgo Arte Ederren Zirkuluaren webgunetik ateratako biografia).

Ekofeminismoaren eta mugimendu alterglobalizatzailearen erreferentea zara munduan, pentsamenduaren hegemonia eta kapitalismo globalizatzailearen botereak higatzen lagundu duena. Zure analisiak eta praktikak eraikitzean, zer eginkizun ematen diezu zure jatorriei duela ia 70 urteko Uttar Pradesh hartan, industria-hazkunde estraktibista bete-betean, eta landa-eremuetako herrien erresistentzia-erreakzioei, batez ere emakumeenei,

parte hartu zenuen eta zeure burua ezagutzera eman zenuen **Chipko** mugimendu hartan?

Vandana Shiva. Beti esan izan dut Chipko mugimendua izan dela ekologiako eta biodibertsitateko nire unibertsitatea, eta Chipko mugimenduko ahizpak nire katedradunak izan direla, eskolara joan ez badira ere. Adituak ziren naturaren ekonomian bizitzten eta ekoizten.

Chipkora joan nintzen baso bat desagertzen ikusi nuenean. Suntsipen ekologikoarekiko axolagabe ager nintekeen eta bide lineal goranahian jarraitu, baina basoen patuak nire izate sakonean eragina izan zuen, eta oihanak eta natura babesten jardun nahi izan nuen. Chipkora jo nuen, nire gidari izan zedin.

Zenbateko eragina izan du zure biografiak jakintza konprometituak eta horiek hegoaldeetik eraikitzeke egiten dituzun ekarpenetan, eta kolonialismo eta kapitalismo suntsitzaile baten aurrean, emakumeen begiradetatik?

Vandana Shiva. Ni fisika ikasten ari nintzen, eta jarrai nezakeen diziplina espezializatueta, baina naturaren funtzionamenduaren gai sakonei heldu nahi nien. Hortaz, teoria kuantikoaren oinarri buruzko doktoretza egin nuen. Munduari buruzko nire ikuspegi kuantikoa, munduari buruzko nire ikuspegi ekologikoa, munduari buruzko nire ikuspegi feminista ikuspegi holistikoa batean elkartu ziren, bizitzaren eta sistema bizien arteko interkonexioan oinarrituta.

Ez dut determinismoan sinesten, biraketa ebolutiboan baizik. Nire bizitzan etengabe bilatu ditut egia, justizia eta indarkeriarik eza.

2022. urtean, munduko ekonomia geldiarazi duen pandemiaren ondoren, eta beste krisi batzuk ezkutatu dituen pandemiaren ondoren –krisi horiek beste eredu batekin konpontzen ez baditugu planetaren eta zibilizazioaren kolapsora eramango gaituzte–, aldaketarako paper aktiboa hartzeaz ez arduratzera eta gure arazoaren konponbidea zientziaren eta teknologiaren eskutik etorriko dela uste izatera garamatza. Zer deritzozu horri? Zuk zenioen "iraultza sukaldeetan hasten da" esaldiak indarrean jarraitzen al du?

Vandana Shiva. Bai, pandemiak, berrogeialdiak eta gosearen krisiak are argiago utzi dute "iraultza sukaldeetan hasten da" esaldia.

Lehenik eta behin, ikerketek erakusten dute 300 gaixotasun infekzioso berri sortu direla azken hiru hamarkadetan, nekazaritza-sistema industrialaren ondorioz. Sistema hori oihanak eta animalien etxeak inbaditzen ari da Amazonian soja transgenikoa landatzeko, Indonesiako oihan tropikaletan palmondo-olioa ekoizteko eta Afrika erdialdean zuhaina eta bioerregaia ekoizteko. Oihaneko animaliei eragiten ez zieten birusak pandemikoak egiten ari dira gizakietan.

Bigarrenik, heriotza-tasa handiagoa da, elikadura txarrak gaixotasun kronikoen epidemia bat sortu duelako.

Hirugarrenik, elikadura bioanitzta eta freskoa nahi-taetzkoa da osasunerako, bai oihanen gaineko presioa murrizteko (gero eta ugariagoak diren gaixotasunak sortzen ari dira), bai gure osasunarentzat. Gure osasuna eta planetaren osasuna bat dira, eta biodibertsitatearen eta janariaren bidez konektatuta daude.

Laugarrenik, erraldoi teknologikoak nekazaritzako erraldoiekin indarrak batzen ari dira laborategian egindako elikagai sintetikoak sartzeko (laboreak erabiltzen dituzte karbohidratoak eta proteinak lortzeko lehengai gisa); une berean, gure iraultza, elikagaiekin hasten dena, gero eta garrantzitsuagoa da. Janaria da bizitzaren moneta. Benetako elikagaiak gure osasunaren eta askatasunaren oinarria dira.

Zure proposamenak, lurrarekin bakean egongo den elikadura- eta nekazaritza-sistema batean oinarritutakoak, beharrezkoa egiten du planteamendu epistemologiko bat, "beste bat", mundura ikuspegi ekodependente eta interdependente batetik begiratuta eta nekazari txikiekiko, batez ere emakumeekiko, gizarte-justiziako jarrera batetik hurbiltzeko aukera emango duena. Nola gauzatu dezakegu? Bide horretatik aurrera egiteak zer erronka ekarriko dizkigu?

Vandana Shiva. Nekazaritza industrialala lurraren aurkako gerra da. Gerraren emaitza da. Gerrarako produktu kimikoak erabiltzen ditu; besteak beste, ongariak eta pestizida sintetikoak.

Nekazaritza ekologikoa bakean bizi da lurrarekin eta bertako biodibertsitatearekin. Bere oinarrian lurraren parte garela onartzen du; lurraren biodibertsitateko landare eta intsektuak ez dira pestizida eta herbizidekin akabatu behar diren etsaiak, lurrean bizi diren gure familiako kideak baizik. Haziak, lurraren biodibertsitatea eta landareak dira gure kosortzaileak eta koproduktoreak elikaduraren sistema bizian. Guk aldaketa ekologiko eta epistemologikoa ahalbidetzen dugu hori biziz, naturak nola funtzionatzen duen behatuz eta guk baino lehenago bakearen bidea egin zutenengandik ikasiz.

“Nire bizitzan etengabe bilatu ditut egia, justizia eta indarkeriarik eza”

“Tokiko elikadura-sistemek elikatzen dute mundua”

Hazien funtsezko zeregina adierazten duzu, eta planetan emakumeen jarduerarekin eta bizitzarekin duten lotura. Zure esanetan, multinazional handiek eta GATTek “pirateria intelektuala” egiten dute, eta horrek ondorio larriak eragiten ditu osasunean, lanean, desberdintasunak areagotzean eta bestelakoetan. Biopirateria, biopatenteak, biodibertsitatea suntsitzea... Indartu behar al dugu praktika kolonial eta espoliazio-praktika horiei aurre egiteko gai izango den agenda alterglobalizatzaile bat?

Vandana Shiva. Globalizazioaren lehen garaietako plana kolonizazioa zen. GATT eta Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) birkolonizazioa dira. “Merkataritza askea”ren legeak Erresuma Batuak gu gobernatzeko erabiltzen zituen berberak dira. Lehenik gure lurra kendu ziguten. Orain gure biodibertsitatea eta gure jakintza nahi dituzte. Horregatik egiten diot aurre MMARI. Globalizazioari buruzko Nazioarteko Foroa (IFG) sortu dugu, enpresa handiek zuzendutako globalizazioa gelditzeko. MMA geldiarazi genuen Seattlen, Cancunen, Hong Kongen. Neem eta Basmati arrozaren biopirateria kasuak ere zalantza jarri ditut. Eta Navdanya mugimendua jarri nuen abian hazien askatasuna, hazien subiranotasuna, elikadura-askatasuna eta elikadura-subiranotasuna berreskuratzeko. Tokiko eremuak behar ditugu, eta



Deepak kumarren argazkia Unsplashen.

tokiko eta nazioko demokraziak eta subiranotasun ekonomikoa berreskuratu behar ditugu. Demokrazia biziaren mugimendua deitzen diogu.

Elikagaien krisiaren aurrean, diskurtso menderatzaileek esaten digute enpresa handiak daukela baldintzarik onenetan elikagai gehiago eta hobekak ekoizteko eta, beraz, prezioak merkatzeko, herritar pobreenek horiek eskuratzeko modua izan dezaten. Hala ere, zuk tokikotasuna iradokitzen duzu elikagaien krisiaren, bidegabekeriaren eta jasangarritasunik ezaren eta abarren alternatiba gisa. Ideia horretan sakondu dezakezu?

Vandana Shiva. Enpresa handiek oinarrizko produktuak ekoizten dituzte monolaborantza, eta nekazariei sargai garestiak saltzen dizkiete. 10.000 landare-espezie jaten genituen. Orain artoa, koltza eta soja transgenikoak landatzen eta salerosten ditugu. Artoaren eta sojaren % 90 bioerregai eta zuhaina egiteko erabiltzen da. Janari industrialak ez da merkea guztizko kostuak kontuan hartzen baditugu. Ekoizpen-kostu handia artifizialki merke bihurtzen da, diru-laguntzen eta monopolioaren bidez. Indiaren kasuan, nekazariak eta ingurumenak jasaten duten nekazaritza kimikoaren kanpokotasuna urteko 1,2 bilioi dolar dela kalkulatu dugu. Osasun-kostuak kontuan hartuz gero, erraz iritsiko gara 3 bilioi dolarrrera. Navdanyan, orain, akre bakoitzeko osasuna eta akre bakoitzeko nutrizioa neurtzen ditugu, akre bakoitzeko errendimenduaren ordez. Elikadura-sistema bat zenbat eta bioanitzagoa izan, orduan eta elikagai eta nutrizio gehiago sortzen ditu. Aniztasunak deszentralizazioa eta tokiko eremuak behar ditu. Tokiko elikadura-sistemek elikatzen dute mundua. Nazioarteko hornikuntza-kateek nekazaritzako industriaren, kutsatzaile erraldoien eta farmazia-industria erraldoien onurak elikatzen dituzte (ikus nire liburua: “Nork elikatzen du benetan mundua?”).

Zure iritziz, mugimendu ekofeministak, nekazarien mugimenduak eta indigenen mugimenduak proposatzen duten elikadura-subiranotasuna nazioz gaindiko korporazioen botereari aurre egiteko gaitasuna duen proiektu politiko bat da?

Vandana Shiva. Elikadura-esklabotza eta -dik-taduraren edo elikadura-subiranotasunaren artean hauta dezakegu. Elikadura-subiranotasunak lurrarekin batera oparotasuna sortzeko eta koproduzitzeko dugun boterea berreskuratzen laguntzen digu. Elikadura-subiranotasunak, paradigma eta praktika gisa, nazioz gaindiko enpresa handiek sortu eta baliatzen duten elikadura-sistema industrialaren faltsutasuna

uzten du agerian. Nekazari txikiek elikatzen dute mundua, ez korporazio handiek. Emakumeek elikatzen dute mundua beren ezagutzarekin eta zaintzarekin, ez produktu kimikoen gerra-industriak.

Hazi bizen, lurzoru biziaren, lur biziaren sormena aitzat hartzeak boterea ematen digu. Besteekiko eta komunitateetan bizi diren beste izaki batzuekiko lankidetzak gehiago ekoizten laguntzen digu.

Repsol petrolio-enpresa espainiarrak Perun iragan urtarrilean egindako isurketa izugarriak agerian utzi du, beste behin ere, sistema kapitalistaren suntsipena eta, aldi berean, multinazional horien zigorgabetasuna. Zure iritziz, gizarte-mugimenduak agerian uzten ari al dira sistemari egin beharreko premiazko kritika erradikal hori, alderdi ekonomiko, politiko, epistemiko eta kulturalari dagokienez?

Vandana Shiva. Mugimendu sozialak ahal duten guztia egiten ari dira naturaren eta pertsonen aurkako krimen korporatiboak argitara ateratzeko eta hartu beharreko erantzukizunak hartzea eskatzeko. Enpresa handiek kontrolatzen dituzten hedabideek inolako moraltasunik gabe hondoratzen dute mugimendu horien lana. Baina, hedabideen begiradatik haratago, pertsonak antolatzen, eusten eta alternatibak sortzen ari dira.

Unibertsitateak ezagutza kritikoa eta gizarte-aldaketarekiko konpromisoa eraikitzeke agindua izan beharko luke. Zer jakintza dira garrantzitsuak gizarte- eta ingurumen-justiziaren aldeko proiektu politikorako? Bateragarriak al dira mendebaldeko ezagutza zientifikoarekin?

Vandana Shiva. XVI. eta XVII. mendeetako sorgin-ehizak, kolonialismoaren garai berekoak, epistemizidioaren hasiera ekarri zuen. Europako ezagutza biziak erailteza ekarri zuen, batez ere emakumeen ezagutzarena: sorginkeriagatik eraildako 9 milioi pertsonetatik gehienak emakumeak ziren. XVII. mendean, Baconek, Ingalaterrako kantzilerra zenak eta sorgin-ehizaren ardura zuenak, liburu bat idatzi zuen, *Denboraren erditze maskulinoa* izenburupean. Ezagutzaren ideia naturaren azpiratze gisa sortu zuen, eta zientzia modernoaren aitzat hartzen da. Baina Baconen menderatzearen eta kontrolaren zientzia ez da mendebaldeko ezagutza zientifikoaren modu bakarra. Teoria kuantikoak, ekologiak, sistema bizen zientziek merkataritza eta erauzketarekin batera doan mendebaldeko zientzia murriztailearen muga erakusten dute.



Deepak kumarren argazkia Unsplashen.

Gizarte-justiziaren eta ingurumen-politikaren proiekturako ezagutza garrantzitsua zientzia sistemikoarena da, ez murriztailearena; sistema bizen zientziarena, ez mekanizistarena; kultura indigenen ezagutzaren oihartzun den zientziarena. Zientzia horretan emakumeak sortzaileak dira, eta zaintza-harremanetatik sortzen den ezagutza dute.

Elkarrizketa hau amaitzeko, zertzelada moduan nahi genuke adieraztea zure iritziz zein izan daitezkeen gai garrantzitsuak komunitate hezitzaileek eta ikertzaileek planetarekin eta bizitzarekin duten konpromisoa indartzeko.

Vandana Shiva. Komunitate hezitzaileek eta iker-tzaileek pribilegioen eta hierarkien ilusioa alde batera utzi behar dute, eta konturatu behar dute guztiok garela munduko herritar. Axolagabekeriaren epistemologiatik zaintzaren epistemologiara igaro behar dugu. Urruntzearen eta banantzearen metodologiatik ikerketa parte-hartzailearen metodologiara igaro behar dugu oraindik, planeta eta bizitza babesteko moduak aurkituko baditugu.

“Gizarte-justiziaren eta ingurumen-politikaren proiekturako ezagutza garrantzitsua zientzia sistemikoarena da”

Nortzuk gara

• Colectivo Alternativo de Aprendizajes (Cala)

Hemen aurkituko gaituzue

• www.colectivocala.org

"Por un odio me entra y por otro... nos salimos" proiektua. Ikuspegi ekosoziala eta interseksioanala duten esperientzia emantzipatzaileak

Cala Kolektiboa 2000. urtean sortu zen. Sortzaileok bat egitea erabaki genuen eraldaketa soziala eta pertsonala bilatzeko, taldean funtzionatzeko beste modu bat ikasiz (berdintasunezkoa, parte-hartzailea, ez diskriminatzailea, dibertigarria...), ikasteko beste modu bat bilatuz, gatazkak lantzeko eta konpontzeko beste modu bat aurkituz, eta autonomiarekin, lankidetzarekin, sormenarekin, inplikazioarekin eta aldatzeko jarrerarekin zerikusia duten beste balio batzuk baliatuz.

Alburquerque (Extremaduran) dago gure egoitza, baina eskualdeko hainbat lekutan bizi diren kideak ere badira kolektiboan. Gure taldeak bateragarria den hezkuntzaren alde egiten du, baina ez hori bakarrik, eraikuntza kolektiboa eta pertsonala batzen dituen hezkuntzaren alde ere egiten du.

Gu hobeto ezagutzeko garrantzitsutzat jotzen ditugun bi elementu azpimarratu nahi ditugu. Alde batetik, gure metodologia horizontala eta berdintasunezkoa, zentzu bikoitzekoa: gure jarduketak afektuan, errespetuan eta zintzotasunean oinarritzen direnez, ahalegintzen gara "goitik" ez esku hartzen eta nolana hiko hertsapenak eta manipulazioak saihesten ditugu. Baita taldeen garapena bultzatzearen harira ere, haien giroa, komunikazioa eta partaidetza zaintzen dugu, diskriminaziorik eta mendekotasunik gabe.

Bigarren elementu gisa, landa-eremuan egiten dugun lana topatuko dugu. Landa-eremuan komunitateak txikiagoak dira, pertsonen arteko konektagarritasuna handiagoa da eta harreman pertsonalek loturak sortzen dituzte hurbilekoa den horretatik. Elkarrekiko erlazioa handiagoa da ikuspegi desberdinak dituzten pertsonen eta kolektiboen artean. Ikuspegi landatar

eta ekosozialarekin lan egiteak bere gain hartzen du lurraldea eta bertan bizi direnak kontuan hartzea, eta hori, gure ikuspegiaren arabera, berezkoa dute gure jarduketetan ekodependentzia eta interdependentzia ikusarazteak eta zeharkakotasunak.

Kolapso ekosozialaren aurrean (gizarte oparoak, erregai fosiletarako irisgarritasun orokortua eta hazkunde mugagabea bideraezinak izango diren horretan), errealtatearen pertzepzioetan aldaketak bultzatuko dituen hezkuntza eskatzen dugu eta etorriko diren gatazkak eta krisiak modu kolektiboan kudeatzeko prestatuko gaituena.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Extremadurako Agentziak (AEXCID) finantzatuta, "Por un odio me entra y por otro... nos salimos" proiektuarekin gorrotoaren diskurtsoak ikertu ditugu eta azpimarratu egin ditugu horien arteko lotura, iragartzen dugun kolapso ekosoziala eta nagusitasun kulturala eztabaidatzeko beharra, egungo eredu errotik zailantzan jarriz. Hori horrela, balioa eman izan nahi diegu Extremadurako hiru kolektiboren esperientzietatik abiatuta eraikitzen diren askotariko kontakizun emantzipatzaileei.

Pastora Filigranak dioen moduan: "Ekonomia kapitalista, patriarkatua eta arrazismoa-kolonialismoa elkar gurutzatzen baditugu, zibilizazio-eredu honek inposatzen duen munduan izateko, jarduteko eta pentsatzeko modu bakarraren mapa izan dezakegu". "Zapalkuntza-sistemak ez dira bere onuratan aprobetxatzen dituen sistemaren kanpokotasunak. Patriarkatua, kolonialismoa eta arrazismoa dira sistema bera" (Filigrana, Pastora, 2020).

Gorrotoaren diskurtsoak ez dira soil-soilik argi eta garbi faszistak, arrazistak, homofoboak edo matxistak direnak. Lurrean batzuk, pertsona batzuk eta gorputz batzuk beste batzuk baino gutxiago balio dutela pentsarazten digutenak ere badira gorrotoaren diskurtsoak, gutxiesten dituztenei sakrifizioak eskatzen dizkietenak eta justifikatu egiten dituztenak, bizi dugun gorpil ekonomiko eta sozialak mugimenduan jarrai dezan.

Ikuspegi hori aintzat hartuta iruditzen zaigu garrantzitsua ikuspuntu ekosozialaren eta beharrezkoa den begirada intersektionalaren arteko bat-egitea azpimarratzea.

"Radio Nos Salimos" programaren bitartez egin dugun ikerketa eta hezikomunikazio lana askotariko begirada eta elkarriketekin elikatu da. Extremaduran klasismoaren, aporofobiaren eta desperekotasunaren gai esanguratsuenetara hurbildu gara, landa-eremuetan hain zuzen ere, ikuspegi historiko alternatibo batetatik abiatuta.

Ekofeminismoa abiapuntutzat hartuta, agerian jarri nahi izan ditugu hainbat hausnarketa ere, egiturazko faszismoaren, esplotazioaren eta materialen eta pertsonen denboraren erauzketa masiboaren aurrean. Uste dugu ezinbestekoa dela planteatzea nola legitimatzen den kulturalki jabetze, gabetze eta desjabetze hori eta nola gizagabetzen den eta erlazionatzen den gorrotoaren diskurtsoekin eta arrakasta izateko helburuekin. Kontuan izan behar dugu ekonomia berdearen eta mundu osora heltzen ez diren proposamenen bitartez egiten den kapitalen zuriketa; halaber, lurraldeak arpilatzen jarraitzen dute, balizko "garapen iraunkorreko" alternatiba horietarako beharrezkoak diren baliabide naturalak eskuratzeko. Pertsona guztiei modu zuzen eta bidezkoan iritsiko zaien aldaketa gisa ulertu behar da bizitzaren iraunkortasuna.

Gorrotoaren diskurtsoak kapitala-bizitza gatazkarekin batzea beharrezkotzat jotzen dugu, eta hala jorratu dugu zeharka proiektu guztian zehar. Lau alor hauetan jaso daitezke: lan-baldintzak, ekosistemak, finantzarizazioa eta merkantilizazioa.

Analisi horietara ikuspegi ekosozial eta intersektionalaren bidez hurbildu gara, konpainia onenean, erreferentziazkoak diren pertsonen eta kolektiboen eskutik. Gure programak entzutera animatzen zaituztegu: <www.ivoox.com/podcast-nos-salimos-del-odio_sq_f11192382_1.html>.

Bestalde, kosta egiten zaigu sinestea errealitate mingarri eta diskriminatzaileen analisi kritikoan soilik



Calak utzitako irudia.

oinarritzen diren eraldaketetan. Uste dugu beharrezkoa dela benetakoak eta hurbilekoak diren esperientzien praktika parte-hartzaileak eta emantzipatzaileak bultzatzea, sistematizatzea eta ezagutaraztea.

Pretendemos Gitanizar el Mundo elkartearekin batera garatzen ditugun estrategia propioak (eta gure webgunean dagoen dokumentu batean sistematizatzen ditugunak) berrikustea esan nahi du ekintzarako hezteak. Are garrantzitsuagoa dena, praktika eta esperientzia jakinetatik abiatuta desio-aukera eta kontakizun berriak sortzea esan nahi du hezteak.

Hiru kolektiboren eskutik egin dugu lan:


Batetik, *Mujeres Sembrando* elkartearekin eta *El Sitio de las Mujeres* gunearekin batera egin dugu lan. Azken hori zaintza, aniztasuna eta emakumeen arteko aberastasuna eta elkar laguntza abiapuntu hartuta, klase-feminismoa, mundu mailako problematiken kontzientzia eta emakumeen eta haurren bizitzan dituzten ondorioak eraldatzen dituen tokia da.

Bestetik, *Calincha Teatro Social y Género* elkartearekin jardun dugu, gorputzarekin eta emozioekin lan eginez komunitatean eta landa-inguruneetan; sentimenduak adierazten lagunduz eta matxismoaren, arrazismoaren eta aporofobiaren inguruko gorrotoaren diskurtsoei aurre egin beharrak sortzen duen frustrazio, sumin eta haserrearen aurrean estimua adierazten lagunduz.

Azkenik, Badajozeko Suerte de Saavedra auzuneko *Auzo Elkartearekin* eta *Osasun Batzorde Komunitarioarekin* egin dugu lan, auzoko komunitate-lanaren, aldarrikapenen eta ekintza kolektiboen garrantzian sakonduz. Guneak sortu ditugu, esate baterako, 2021ean inauguratu ziren baratze kolektiboak.

Dei egiten dizuegu proiektuaren baitan egindako bideoak ikustera eta eraldaketari nondik heltzen diogun hausnartzera.

Colectivo Cala



Benetako Green, partaidetzako foro alternatiboa Vitoria-Gasteizen

2019an, batzar konstituziogile baten ondoren, *Benetako Green* foro alternatiboa sortu zen Vitoria-Gasteizen herritarren ekimenez. Bere webgunean jasota dagoen bezala "*benetako green capital* baten izaera berreskuratzea du helburu. Sari horrek aitortza egiten dio ingurumenaz eta bere herritarrek bizi diren inguruaz ondoen arduratzen diren hiriei. Gure ustez Vitoria-Gasteizek galdu egin du izaera hori". Foroa sortu da, batez ere, herritarren parte-hartzea benetakoa izan dadin saiatzeko, hots, herritarrentzat eta herritarrek egina, eta ez unean uneko gobernuak esandakoa egin eta gobernuarentzat lanean aritzeko, han-hemenka parte hartzeko foro ofizialetan gertatzen ari den bezala: Auzoguneak, Elkarguneak eta Gizarte Kontseilua.

Egun 16 kolektibok eta 165 norbanakok hartzen dute parte *Benetako Green*en. Bi helburu nagusi dituzte: batetik, udal-politikan eragitea, batzordeetan edo udalbatzarrean bertan aurkezten diren askotariko mozioak eta/edo ekimenak dakartzaten proposamenen bidez, eta, bestetik, esku hartzeko ekintzak eta estrategiak bultzatzea, herritarren parte-hartze erreala, operatiboa eta eraginkorra sustatzeko.

Foroa hilean behin batzartzen da, eta batzordeak eta lan-taldeak ere badaude. Gainera, batzar artean sor daitezkeen premiazko gaietarako bozketa telematikoa egiten dituzte.

Denbora horretan, oro har, udaleko osoko bilkuraren babesa eskuratu duten mozioak sustatu ditu foroak:

- Klima larrialdiari buruzko adierazpena (2019ko iraila).

- Eskola-eremu osasungarriak (2019ko abendua).
- Hiriko zuhaitziaren kudeaketa, beroketari aurre egiteko elementu estrategiko gisa (2020ko azaroa).
- Isurketa txikiko eremuak ezartzea (2020ko abendua).
- Hiritarrek parte hartzeko prozesuei buruzko Dekretu proposamena (2021eko maiatza).

Beste bi herri-proposamen ere egin dira honako hauetarako:

- Landarediaren kudeaketa jasangarria egitea eratzun berdeko linea elektrikoetako kaleetan.
- Atzerakako aparkalekuak kentzea kasu eta eremu sentikorretan.

Era berean ekarpenak egin zaizkie hainbat egitasmo-ri: "Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren Aurrerakina", EAeko Mugikortasun jasangarriari buruzko Legea, eta "Covid ondorengo Gasteizentzako proposamenak". Halaber, "Energia-autosufizientzia udal-eraikinetan" dokumentua osatu da; Hobetuz parte-hartze prozesuan usategi ekologikoak eraikitzeke proiektua aurkeztu da (aukeratu egin dute), eta txostenak, prentsa-oharrak, salaketak eta bestelako ekimenak egin dira.

"Agora Green" izeneko eztabaida eta gogoeta kritikoa egiteko espazioa eratu berri dugu. 2021eko urri-tik 2022ko apirilera bitartean lau edizio egin dira eta honako gai hauek landu: "Gasteizko mendien konterbazio bereziko eremua handitzea"; "Ekohezkun-



Benetako Greenek utzitako irudia.

tza gizarte eraldaketarako"; "Zer ari da gertatzen argiaren fakturarekin?"; eta, "Zer gertatu zen Gasteizko mendien parke naturalarekin?".

Hirian eremu kritiko handiak diren horien orainaldiko/etorkizuneko lerroetan pentsatzen hasten bagara, honako hau esan dezakegu:

- Biztanleria-dentsitate baxuak lurzorua okupazioa eta auzo berrien hedapena eragin du, eta errotik aldatu ditu landa-eremu periferikoak eta haien oreka eta ekosistema ekologikoak.
- 2008ko mugikortasun plana ez da gauzatu eta bizkarra eman dio bizikletari. Biztanleko eta urteko 2 eurotara iristen ez den aurrekontua murriztu du, nahiz eta bizikleta sustatzeko benetako politikak biztanleko eta urteko 10 eurotik gora jartzen dituzten. Horren ondorioz, 2014tik 2019ra bitartean bizikletak 4 puntu galdu ditu banaketa modalean (% 12tik % 8ra); lau puntu horiek kotxeak irabazi ditu (% 20tik % 24ra). Bestalde, ez da lortu trafiko istripuak murriztea: urtean 4000tik gora istripu gertatzen dira, 150 harrapatze eta hildako 1 (kopuru horiek 2020an baino ez dute behera egin, itxialdiagatik eta etxeratze-aginduagatik).
- Hirigintza eredu eta kudeaketa horrek ez du lortu bero-uharte efektua murriztea, esku-hartze batzuetan landaredia oso urria baita. Esate baterako, Santa Barbara plaza, Udaleko Plaza

Berria, etab. Zuhaitz handiak kendu dira zuhaitz gazteak landatzeko.

- Eraikinen birgaitzea etetea eta/edo moteltzea. Hiru urte daramatzagu eraikinak birgaitzeko udal-laguntzarik gabe, eta horiek ezinbestekoak dira energia eraginkortasunari eta irisgarritasunari begira.
- Hondakinak kudeatzeko moduak ez du birziklapena errazten. Europak % 50eko helburua ezarri zuen 2020rako, eta Vitoria-Gasteizen % 29koa zen 2018an.
- Gasteizko Mendien Parke Naturala Euskadiko Parke Naturalen Saretik kanpo geratzeko eta/edo bere hedadura mugatzeko arriskua, frackingaren, Abiadura Handiko Trenaren sarreraren eta/edo megaparke eolikoak instalatzearren arriskua dela eta.

Azken batean, ez dugu merkatu interesen edo hirian boterea duten elite batzuen mendeko hiria nahi. Herritarrentzat bizitzeko egokia izango den hiria nahi dugu, komunikatzeko eta gozatzeko hiria, ekosistemekin eta landa-eremuarekin errespetuz jokatu duena, herritarren benetako parte-hartzea Vitoria-Gasteizko orainaldiko/etorkizuneko ardatz izanik.

Horren guztiaren berri *Benetako Greenen* webgunean daukazue: <<https://benetakogreen.org>>.

Benetako Green foroa



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

- Salvemos El Perdón 4.0-
Erreniega Salba Dezagun
- www.salvemoselperdon.org

Berriztagarriak BAI, baina EZ horrela

2020a pandemia globala hasi zen urte gisa oroituko da historian. Pandemia horrek begirada aldatu digu. Konfinamendu handiaren ondoren, ziurgabetasun-garai bat etorri da. Gizartearen arlo guztiei eragiten dien aldaketa historiko baten aurrean gaude harriturik.

Salvemos El Perdón 4.0-Erreniega Salba Dezagun elkarteak herritarren egitasmo gisa sortu zen 2020ko udan, "berriztagarrien pandemia" betean, estatuko beste hainbat tokitan bezala, gure bailara maitean ere zelatan ari diren makroproiektu fotovoltaikoen aldeari erantzuteko. Elkartearen hazia Erreniega mendilerroaren hegoaldeko magaleko Adios herri txikian jarri zen, hau da, Nafarroako erdigune geografikoan, baina gizarte-mugimendua Izarbeibarreko gainerako herrietara ere hedatu da, eta foru-erkidegoko beste toki batzuetara ere bai.

Izarbeibarren, elkarren ondoko hiru eguzki-parkek osatzen dute Solaria (Ibex 35-ekoa alajaina) enpresa sustatzailearen proiektua. Adios eta Muruzabal udalerrietan daude, 150 MW-eko potentzia dute, eta 300 hektarea inguruko azalera, hau da, 400 futbol-zelaik adinakoa. Hala ere, badira proiektu gehiago ere tramitazioan Erreniega mendilerroaren iparraldeko magalean, Iruñetik oso gertu. 1.200 futbol-zelairen azalera dute horiek. Eta atzetik beste asko datoz. Nafarroak energia elektrikoa esportatzen du gaur egun. Baina zereala inportatu egin behar izaten du. Ukrainako gerrarekin argi ikusi dugu. "Berdeak" izan arren, benetan prest al gaude nekazaritza-produktibitate handiko lur kopuru hori galdu eta industrialde bihurtzeko?

Gure erronka: energia berriztagarriak ezinbestekoak diren arren, herritarrei azaltzea horien oinarrian dagoen hedapen-eredu desordenatuak zergatik bihurtzen dituen bi ahoko ezpata, eta azaltzea horrek

zenbateko ondorio kaltegarriak ekartzen dizkien gure ingurumenari, gure kultura-ondareari, gure paisaiari, gure baliabide naturalei eta gure landa-munduari. Osasun-krisia, energia-krisia, lehengaien krisia eta Europan jakin ezin diren ondorioak izango dituen gerra-gatazka bat dugula kontuan hartuta, arazo konplexuei irtenbide sinpleak emateko tentazioak okerrera eraman gaitzake epe ertain eta luzera.

Hasieratik ikusi genuen gure aldarrikapena kalera eraman behar genuela. Sare sozialak eta beste komunikabide batzuk aprobetxatu genituen *Mendiak mugitzeko boluntario bila* kanpaina sortzeko. Artean oinarrituta, eta Alberto Odériz artistaren laguntzarekin, gure mendia *Uharteko Arte Garaikide Zentrora* eramatea lortu genuen, eta, ondoren, *Nafarroako Museora*: "Mendia eramango dugu: hango lurrak, laborantzak, animaliak eta zuhaitzak, errekaak, baserriak, haizea, urtarok, usainak, ermitak eta paisaiak. Agian, ez dagoenean, konturatuko gara zer genuen, hau da, zer gal dezakegun".

Berehala erabaki genuen gure borrokak ereserki bat behar zuela (*Te contaré*). Juantxo Arraizari (musika-ekoizle eta konpositorea), Itziar Martinezi (ereserkiaren letraren egilea) eta maila nazionalako artista ospetsuen kolaborazio altruistari esker, berrehun pertsona baino gehiago bildu genituen performance batean: haur, gazte, nagusi eta adinekoak. Lanabesez, lantzaz, ezkutuz eta banderaz horniturik, gogor defendatu genituen gure lurrak enpresa sustatzaileen erasoaren aurrean. "Ahora que me levantan las faldas, ¿lucharás tú por mí? Alzaremos por ellas mil lanzas. Erreniega salba dezagun. Hartu egingo dugu!".

Gure diskurtsoa eskatzen ziguten toki guztietan zabaltzen saiatu ginen, egungo energia-ereduaren



Argazkia: Santi Vaquero.

arazoari buruzko hitzaldiak emanez; aldi berean, enpresa sustatzaileek ordaindutako iragarkiak jarri zituzten prentsa idatzian, aurkeztutako proiektuen onura ekonomiko handiak argudiatuz (lanpostuen sorrera, energia garbiak, despopulazioaren aurkako borroka...).

Ahalegin handiarekin, gure herrietan makroparke fotovoltaikoak jartzearen aurka 25.000 sinadura eta atxikimendu biltzea lortu dugu, baita herritarrak mobilizatzea eta gure borroka berean dauden beste erakunde batzuekin harremanak estutzea ere, esate baterako, **NEETEN** (Nafarroako Energia Eraldatzen) eta Espainia mailako **ALIENTE** (Energia eta Lurralde Aliantza) erakundeekin.

Ez ditugu gure ordezkari politikoak ahaztu; hala, legebiltzarreko talde guztiekin bildu ginen, energia berriztagarriak garatzeko hartutako bideak zergatik ez gaituen inora eramango azaltzeko. Azaldu genien zergatik behar dugun energia-eredu banatu bat, autokontsumoan oinarritua, non erabiltzaileak garrantzitsuak izango diren, eta ez kontsumitzaile hutsak. Zergatik den ezinbestekoa trantsizio energetiko justu bat egitea, gure dibertsitate biologikoa eta paisaia-dibertsitatea, landa-mundua eta, jakina, gure zelaiak zainduko dituen. Eta beranduegi izan baino lehen, zergatik aldatu behar dugun gure kontsumo-eredua, sistema kapitalista dekadente batean ainguratuta dagoena eta baliabideak kontsumitzeari utziko ez diona.

Izan ere, klima-aldaketa eta biodibertsitatearen galera dagoeneko larrialdi bat da munduan.

Nafarroako Parlamentura iristea lortu genuen (bi aldiz), eta azaldu genuen ez ginela gauzak ondo egiten ari energiaren eta ingurumenaren arloan; gure ordezkariak entzun ziguten arren, ez ziguten jaramonik egin. Porrota aitortzen dugu Nafarroan berriki onartutako Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legeari dagokionez, gure ekarpenetako bat ere ez baitu jasotzen. Aitzitik, baztertu egiten du hain beharrezkoa den makropoligono fotovoltaiko eta eolikoaren garapenaren (gaur egun kontrolik gabekoa) erregulazioa.

Baina borrokan jarraituko dugu gertatzen dena gertatuta ere irabazi egingo dugun gerra batean, nahiz eta galdu. Egin beharrekota egiten ari garen ziurtasunak adoretzen gaitu. Orain, inoiz baino gehiago, ezagutza eta dibulgazioa jarri behar ditugu gizartearen zerbitzura. Eta ez gaude bakarrik. Lerro hauen bidez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu gure borrokan lagundu diguten pertsona guztiei, eta oraindik egin ez dutenak animatu nahi ditugu horretara. Hartu zure makila eta ekin bideari. Gurekin etorriko al zara?

David Eslava Echavarren

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak

Izenburua: La sangre de la tierra

Tokia, urtea: México, Guatemala eta Honduras, 2019

Produkzioa: Alba Films eta la Fundación Luciérnaga


Zuzendaritza: Félix Zurita de Higes

Iraupena: 48 minutu



Sinopsia. Dokumentalak presa hidroelektrikoen aurkako hiru erresistentzia-prozesu biltzen ditu, Mesoamerikako hiru herrialdetan gertatutakoak: Mexikon, Guatemalan eta Hondurasen. Beren lurak eta lurraldeak defendatzeko mugimenduen parte diren pertsonen erasotu diete, eta mehatxatu eta kriminalizatu egin dituzte, proiektu ekonomikoen inposaketaren aurka modu aktiboan borrokatzeagatik. Izan ere, proiektu horiek eragin latzak dituzte pertsona horien bizitzetan (Herriarte).

Hemen ikus dezakezue: <www.entrepueblos.org/publicaciones/la-sangre-de-la-tierra>



Izenburua: Ocupación S.A.

Tokia, urtea: España/Brasil, 2020

Produkzioa: Sebastián Ruiz Cabrera, Laura Daudén eta João Paulo Brito

Zuzendaritza: Laura Daudén eta Sebastián Ruiz Cabrera

Iraupena: 40 minutu

Sinopsia. Ocupación S.A. traizioaren erretratua da. Ikuspegi zorrotz eta editatu gabea erabiliz, dokumentalak ikusgai jartzen ditu Mendebaldeko Saharako ustiapen ekonomikoan parte hartzen duten enpresari eta politikari espainolen izenak eta abizenak. Mendebaldeko Sahara Afrikako azken kolonia da, bai eta munduko lurralde bortitzenetako, militarizatuena eta zentsuratuenetako bat ere. Dokumental honetan bildutako lekukotzek, halaber, agerian uzten dute Europako botere-guneetan hasten den eta Marokoko hiri okupatuetan amaitzen den isiltasunaren eta gezurren katea. Izan ere, Marokon gizon eta emakume sahararrek beren eskubideen urratzeari eta ukatzeari aurre egiten diote (Mundubat).

Hemen ikus dezakezue: <www.mundubat.org/proyecto/ocupacion-s-a-dokumentala/?lang=eu>
<<https://vimeo.com/483160336>>

argitalpenak

Izenburua: Mujeres defensoras contra el extractivismo minero en el Abya Yala

Egilea: Carmen Aliaga, Nancy Fuentes, Angela Daniela Rojas Becerra, Stefania Vega eta Eva Vázquez

Koordinazioa eta berrikuspena: Eva Vázquez

Tokia, urtea: 2021

Argitaletxea: Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales



Sinopsia. Testu hau Latinoamerikako eta Karibeko 25 kasuren sistematizazioa da, zehazki Guatemalan, El Salvadorren, Hondurasen, Argentinan, Bolivian, Brasilen, Chilen, Kolonbian, Ekuadorren eta Perun gertatutakoak. Kasu horietan meatzaritzak hainbat emakume modu latzean erasan ditu. Aipatutako herrialde guztietan meatze-jarduerak egiten dira, eta horien ondorioak hainbat mailatan antzeman daitezke: maila lokalean, estatu-mailan eta eskualde-mailan, hain zuzen ere. Emakumeen kasuan, zehazki, eragin horiek gorputz-, lur- eta erakunde-lurraldeetan azaltzen dira. Halaber, emakume horien aurkako egiturazko indarkeria areagotu dute. Indarkeria hori ezaugarri politiko, sozial, psikologiko, fisiko eta emozionaletan gauzatzen da (Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales).

Hemen ikus dezakezue: <www.redlatinoamericanademujeres.org/mapa/wp-content/uploads/2021/11/Mujeres_contra_el_extrativismo_minero_en_el_abya_yala_defensoras_compressed.pdf>



Izenburua: Guía para educar desde la perspectiva ecosocial en el cuidado y defensa del medio natural

Egilea: Luis González Reyes, Charo Morán, Mara Nieto, Alicia de Blas, Juan Fernández

Tokia, urtea: Madril, 2021

Argitaletxea: FUHEM educación + ecosocial

Sinopsia. Gida honen helburua proposamenak egitea da, ikuspegi ekosozialetik ingurune naturalaren zaintzari eta defentsari buruz irakasteko moduari buruzkoak. Horretarako, gaitasun ekosoziala deritzogun kontzeptutik abiatzen gara, eta ikasketak, metodo- eta ebaluazio-helburuak eta edukiak lantzeko proposamenak egiten ditugu. Proposamen horiek ikasgeletako jarduketara zehatzak izan daitezke, kasu batzuetan, edo irakaskuntzari heltzeko ikusbideak, beste kasu batzuetan. Proposamenak LOMLOEren barruan aplikatzeko pentsatuta daude LOMLOE (FUHEM).

Hemen ikus dezakezue: <www.fuhem.es/wp-content/uploads/2021/12/Guia-para-educar-perspectiva-ecosocial.pdf>

erakundeak

Kolektiboaren izena: Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales

Eragin-eremua: Latinoamérica

Web: www.redlatinoamericanademujeres.org



Borrokarako idealak. *Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales* emakumeen erakundea da, eta gure herrien eta naturaren eskubideen, bai eta eskubide sozialen defentsan ere laguntzen dituzten politikak, proiektuak eta praktikak bultzatzen ditu. Meatzaritzako erauzketa-proiektuek eskubide horiek urratzen dituzte, eta, era berean, emakumeei modu zuzenean eragiten diete (Red Latinoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Sociales y Ambientales).



Kolektiboaren izena: Clínica ambiental

Eragin-eremua: Ecuador

Web: www.clinicambiental.org

Borrokarako idealak. *Clínica ambiental* 2008an sortu zen, Ekuadorreko Amazoniako arazo larriei aurka egiteko Osoko Konponketarako proposamen moduan. Lago Agrion dauka egoitza, petrolio-jarduerek eragindako eremuan, eta barnealdetik eta behalaldetik konponketak egiteko proposamen moduan sortu zen. Lurra, landareak, animaliak eta ehun soziala hartzen ditu barne, hots, sozioekosistemak.

Clínica ambiental erakundea, Gizarte eta Ingurumen Konponketarako Proiektu moduan, Centro de Estudios y Asesoría Social eta Acción Ecológicaren arteko izatezko elkartea da. Diziplina anitzeko profesionalen taldea dauka: medikuak, psikologoak, soziologoak, agronomoak... Denak naturarekiko konpromisoa daukaten ekologistak dira, eta beren komunitate-konpromisoa lantzen dute, hainbat komunitatetako hogeita hamar sustatzailerekin batera. Horrekin batera, hainbat unibertsitaterekin hitzarmenak dituzte, hala nola Quitoko Universidad Andina Simón Bolívar-ekin eta Universidad de Cuenca-rekin. Helburua akademiaren eta komunitatearen arteko elkarrizketa eratzea da, eta zorrotasun zientifikoarekin ikerketa herritarra egitea (Clínica ambiental).

ezinbesteko
agenda



Ekitaldia: Escuela de Verano FUHEM: Hacia una inclusión real

Deialdia: FUHEM educación + ecosocial

Lekua eta eguna: Ateneo La Maliciosa, uztailaren 6-8a

Informazio gehiago: www.fuhem.es/2022/04/28/vuelve-la-escuela-de-verano-fuhem-hacia-una-inclusion-real

"Transformar miradas. Hacia una escuela inclusiva real" tituluarekin, FUHEM Udako Eskolak hezkuntza-gunea gune inklusibo moduan lantzea bultzatu nahi du. Horretarako hezkuntza-sistemaren oztupoak identifikatuko ditu, eta honako funtsezko hiru ideietan sakonduko du:

- *Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak irakaskuntza-ikasketa prozesuan barneratzea.*
- *Gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden ikasleak harremanen, bizikidetzaren, kide izatearen zentzuaren eta ikasketa-prozesuaren arloetan barneratzea.*
- *Generoari lotutako nortasun pertsonalaren eta desberdintasunaren arloan barneratzea, ikuspegi intersektional batetik.*

Udako Eskola hezkuntzako eta hezkuntza ez-formaleko profesionaleri dago bideratuta, eta matrikulak 150 euro balio du. FUHEM Udako Eskolak zeinu-hizkuntzako interpretazioa izango du (FUHEM).



Ekitaldia: II Congreso Internacional "Educación Crítica: hacia una práctica inclusiva y comprometida socialmente"

Deialdia: Universidad de Valladolid

Lekua eta eguna: Campus María Zambrano (Universidad de Valladolid), Segovia, irailaren 23 eta 24a

Informazio gehiago: <https://educacioncriticaeinclusiva.wordpress.com>

Pandemia iritsi zenez, hasiera batean 2020ko irailean egiteko asmoa genuen II. Biltzarra atzeratu behar izan genuen. Biltzar birtuala ez egitea erabaki genuen. Gure asmoa biltzeko, harremanak sortzeko eta sareak ehuntzeko gune baliagarria izatea da, horren bidez ezagutza eta esperientziak partekatzeko, ikerketetan eta irakaskuntzan elkarlana bultzatzeko, bai eta guretzat funtsezkoak diren heziketa- eta gizarte-gaien defentsarako sarea sortzeko ere. "Educación Crítica: hacia una práctica inclusiva y comprometida socialmente" izeneko II. Nazioarteko Biltzarraren helburua hau da: hezkuntza kritikoaren rola eta garrantzia irakasleen prestakuntzan eta gizarte- eta hezkuntza-politika neoliberalen analisisan aztertzea, bai eta guztien onerako hezkuntzaren aldeko bestelako aukerak proposatzea ere (EDUCRÍTICA).

matxino artean
en rebeldía



Urratsez urrats ortzimugara
Ania Saénz de Buruaga